

ORDIZIAKO LOKAL KOMERTZIAL HUTSAK EKINTZAILE BERRIEN BITARTEZ BERRESKURATZEKO PROGRAMAREN OINARRI ARAUTZAILEAK 2017.

ARRAZOIEN AZALPENA;

Lokal hutsak ekintzaile berriekin berreskuratzeko programaren estrategien eta jardueren ardatza da Ordiziako udalerrian merkataritza-dentsitate txikiko eta lehentasunezko eremuetan merkataritza berreskuratzea eta indartzea. Eremu horien indarberritze-prozesurako funtsezkoa da merkataritza-jarduna bultzatzea; hain zuzen, eremu horiek ekonomikoki suspertzeko akuilu nagusietakoa da merkataritza.

Helburua da ardatza horien funtzio ekonomikoa berreskuratzea eta indarberritzea. Eta horretarako, jarduera eta ekimen berriak ezarri nahi dira, horien bidez pertsonen joan-etorria sortzeko eta eremu horiei “bizia emateko”. Susperraldi ekonomikoa bultzatzeko eta bideratzeko neurri garrantzitsuenetakoa da erabili gabeko edo gutxi erabilitako azalerei, kasu honetan merkataritza-lokal hutsei, mugimendua eta bizia ematea.

Programa honetarako, aurreko deialditan onartutako diru-laguntzei eta 2017an onartuko diren beste hamar proiektu berrien diru-laguntzei aurre egiteko nahiko diru jasoko du Ordiziako Udalak 2017ko aurrekontuetako Merkataritza Saileko kontu-sailean (Enpresei diru-transferentzia). Beraz, onartu eta agindu horretan zehaztutako aurrekontutik dagozkion diru-laguntzen esleipenak egitea dagokio Ordiziako Udalari. Hurrengo urteetan helburuak mantentzeko eta urte horri dagokion aurrekontuetan onartu eta gero, aipatutako kontu-saila berritu eta gehitzeko aukera izango du Ordiziako Udalak.

1.art. XEDEA;

Ordiziako Udalak lokal hutsak ekintzaile berrien bitartez berreskuratzeko programaren testuinguruan adostu dituen lokal hutsetan merkataritza-jardueraren bat martxan jarri nahi duten ekintzaileek bete beharreko baldintzak eta betekizunak zehaztea eta arautzea da oinarri hauen xedea.

Ordiziako merkataritza biziberritzeko plan bereziari (MBPB) jarraituz, kale desberdinetako lokal hutsten ehunekoei jarraituz baita kale desberdinak merkataritza jarduera orokorrarentzat duten lehentasunari jarraituz eta orden honetan, Alde Zaharrea kokatutako lokalak, ardatz nagusietan (Urdaneta kalea eta Filipinak kaleko lehen tramoan) kokatutako lokalak, Garagartza Plazako lokalak eta J.M. Barandiaran plazako

lokalak izango dute lehentasuna. Aldi berean herriko auzoetan ase gabeko beharrei erantzuna emateko baliagarriak izan daitezkeen proiektuak kontutan hartuko dira.

Esleitutako diru-laguntza hauei erantzuna emateko baliabideak xede horretarako bideratutako partidaren kargura joango dira.

Helburu honekin Ordiziako Udalak Merkataritza arloaren bitartez lokal hutsen poltsa erabiliko du eta beharrezkoa den neurrian handitu ere, lokal hutsen jabeekin harremanetan jarriz eta ekintzaileak proposatzen dituzten lokal desberdinak poltsa horretan jasoz, honetarako ezinbestekoa izango delarik lokal komertzial hutsen jabeek bete beharreko eskaera-inprimakia aurkeztea.

2.art. APLIKAZIO-EREMUA eta PROZEDURA;

Ordizian merkataritza-jardueraren bat abiatzeko interesa duten pertsona fisiko edo juridiko guztiei zuzendurik dago deialdia, edonon bizi direla ere.

Merkataritza aldetik indarra galdu duten inguruetan eta merkataritza ardatz nagusiak diren horietan merkataritza-jarduerak zabaltzera eta indartzera bideratuko dira oinarri hauetan araututako laguntzak.

Nolanahi dela ere, lokalaren jabeen senideek eginiko eskabide oro baztertu egingo da, honako kasuetan: jabearekin ezkontza-ahaidetasuna edukitzea, edo odol-ahaidetasuna zuzeneko lerroan edozein gradutan.

Merkataritzako lokal hutsak alokairuan kontratatu eta honen ordainketarako diru-laguntza jasotzeko prozedura irekia izango da; hots, prozedura ireki bidez esleituko dira lokal horientzat laguntzak, era horretara interesatu guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten bermatzeko. Deialdiaren xede diren lokaletan merkataritza-jardueraren bat martxan jartzeko interesa duen edonork, betiere jarduteko beharrezko gaitasuna badu, aukera du eskabidea egiteko.

3.art. EZAR DAITEZKEEN JARDUERAK;

Sektore edo jardun hauetakoren batekin lotura duten jarduerak ezarri ahal izango dira lokal horietan:

- Txikizkako merkataritza
- Pertsonen zuzendutako zerbitzu enpresak
- Ostalaritzako ekimenak balioa eta kalitatea erantsia dutenean.

- Intereseko izan eta merkataritza aldetik inguru hori suspertzen laguntzeko koherentea izango den beste edozein, betiere lokal komertzial hutsean ezartzen bada.

4.art. ESKATZAILEEK ESLEIPENDUN IZATEKO BETE BEHARREKO BALDINTZAK;

Dagokion jarduera gauzatzeko lokala huts bat berreskuratzen duten ekintzaileek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

- a) Negozio edo jarduera bideragarri baten proiektua izatea, betiere 3. Artikuluan zehaztutako jardueraren batekin lotua.
- b) Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beteta izatea.
- c) Lokal komertzial hutsaren jabeak programa honetan parte hartzeko eskaera-inprimakia aurkeztuta izatea.
- d) Honako dokumentu hauek atxikitzea: sustatzailearen curriculum eta jardueraren memoria-proiektua (GOIEKI eskualdeko garapen agentziaren bitartez). Azken horretan puntu hauek jaso beharko dira:

- Jardueraren edo negozioaren asmoa zein den labur azaltzea.
- Egitasmoaren ezaugarri berritzaileak, merkatuari balio erantsia ematen diotenak eta besteekiko desberdintzen dutenak azaltzea
- Proiektuak merkatuaren zer beharrizan asetzen duen azaltzea. Jarduera edo negozioaren aukera azaltzea.
- Produktua edo zerbitzua zein publiko objektiboari bideraturik dagoen zehaztea; hau da, nor izan daitekeen bezero jakinaraztea.
- Enpresak edo jarduerak jardunean egingo duen lehen urtean zenbateko salmentak izango dituen edo lortuko dituen helburuak aurreikustea edo gutxi gorabeherako estimazio bat egitea.
- Jarduera edo negozio-asmoa martxan jartzeko beharko diren baliabideak adieraztea: teknologia eta azpiegitura, giza baliabideak, finantza-baliabideak, etab.
- Aurreikusitako emaitza kontua.
- Jarduera edo negozioaren ideia sustatzen duen taldeak ekintzaile izateko eta enpresa bat bideratzeko zer ahalmen eta gaitasun duen labur-labur zehaztea.

* Epaimahai eskudunak (13. Artikuluan jasotzen da) baloratuko ditu aurkeztutako eskabide eta proiektuak.

5.art. DIRU-LAGUNTZAK EKINTZAILEEI ESLEITZEA;

Udalak ondorengo balorazioen arabera esleituko ditu diru-laguntzak:

✓ ORIGINALITASUNA ETA BERRIKUNTZA EGUNGO ESKARIAREKIKO, gehienez ere 15 puntu

- Udalak lokal hutsen poltsan dituen eta ekintzaileek aurkezten dituzten lokalen proposamenen artean, kontuan hartuko da merkataritza-jarduera berriaren kokapena, eta alde aurretik, kale berean antzeko merkataritza-jarduerarik baden ala ez aztertuko da, bidegabeko lehiarik eta antzekorik ez sortzeko.
- Negozioak merkataritza-eskaerari zer ekarpen egingo dion ere kontuan izango da: ordutegia, zer egunetan zabalduko den.
- Aintzat hartuko da egitasmoak Ordiziako identitate eta kulturarekiko duen erlazioa, Ordiziari egiten dion ekarpena, bere azoka eta merkataritzari, etab.

✓ AURREIKUSITAKO INBERTSIOA, gehienez ere 10 puntu.

Kontuan hartuko da jarduera martxan jarri edo denda zabaltzeko egin behar izan den inbertsio ekonomikoa. Lokala eta instalazioak egokitzeko inbertitu diren 2.000,00 euroko (BEZ kontuan hartu gabe) puntu bat emango da, gehienez ere 10 puntu izango dira.

✓ SORTUTAKO LANPOSTUAK, gehienez ere 10 puntu.

Proiektuan zenbat lanpostu sortu diren hartuko da kontuan. Sortuko den lanpostu bakoitzeko puntu bat emango da, gehienez ere 5 puntu izango dira. Ekintzailea edo langileak herritarrak izatea, azken 5 urteetan jarraian edo beraien bizitzaren %75a Ordizian erroldatuta egon direnak, aparteko puntu bat batzen dute.

✓ ALOKAIRUAREN PREZIO, gehienez ere 5 puntu.

Ekintzaileek lokal komertzial hutsaren jabeek ordaindu beharreko errenta, Udalak jasotako eta eguneratutako datuen arabera, merkatuak m²ko finkatutako prezioa hobetzea, hau da, gutxitzea saritzen da.

Hauek dira diru-laguntzak esleitzeko eta lokal hutsen alokairurako prezioekin erlazioa duten balorazio taulak:

Kale Nagusia, Plaza Nagusia eta Urdaneta kalea	
10,00 € m2	1 puntu
9,50 € m2	2 puntu
9,00 € m2	3 puntu
8,50 € m2	4 puntu
8,00 € m2	5 puntu

Alde zaharreko beste kaleak*, Garagartza Plaza eta J.M. Barandiaran Plaza *(Etxezarreta, Done Petri, Andre Mari, Goitia, Elkano, Legazpi, Goen)	
9,00 € m2	1 puntu
8,50 € m2	2 puntu
8,00 € m2	3 puntu
7,50 € m2	4 puntu
7,00 € m2	5 puntu

21-P komertzio gunea eta periferiako beste kale guztietan	
8,00 € m2	1 puntu
7,50 € m2	2 puntu
7,00 € m2	3 puntu
6,50 € m2	4 puntu
6,00 € m2	5 puntu

* Alokairurako prezio hauek gainditzen dituzten lokalak ez dira programa honen barruan kontutan hartuko. Udalak eta ekintzaileek egingo duten ahalegina lokal hutsen jabeen ahalegina eskatzen dute eta honetarako merkatuan finkatutako batz besteko prezioetan alokatu beharko dituzte lokalak.

- ✓ PROIEKTUAK EUSKARAREKIKO BETETZEN DITUEN IRIZPIDEAK ETA EUSKARAK PROIEKTUAN IZANGO DUEN PRESENTZIA, gehienez ere 5 puntu.

Proiektu berri bat aurkezterakoan, saltoki berriari euskararekiko beteko diren irizpideak eta euskarak izango duen presentzia zehaztuko dira. Hizkuntzari dagokionez proiektu bakoitzeko ekintzaileak erabakiko du zerbitzua euskara hutsean edo elebitan eskainiko dion bezeroari.

Hizkuntza paisaia eta irudiari dagozkion ataletan ze egoera emango den zehaztu beharko da:

Enpresaren izena eta logotipoa, kanpoko errotulazioa, barruko errotulazioa (harrera lekuko, bulegoetako eta sailtako errotuluak), lan arroparen errotulazioa, idazpatera eta zigiluak (enpresako zigiluak, orri-buruak, faxak, karpetak, gutun-azalak), txartelak (bisita txartel pertsonalak, bisitarietzako txartelak), harrerako hizkuntza, webguneak, komunikazioa, marketina, enpresari buruzko informazioa, prentsako informazioa eta publizitatea, katalogoak, jendearen aurreko ekintzak, megafonia, langileen euskara maila, bezeroarekiko ahozko harremanak, bezeroarekiko idatzizko harremanak (fakturak, tiketak, oharra, gogobetetze inkestak), administrazioarekiko (Udala, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritza) ahozko zein idatzizko harremanak, posta elektronikoak eta jakinarazpenak, euskararen ahozko erabilera langileen artean eta enpresa barruan, enpresa barruko bileretan erabilitako hizkuntza, informatikako aplikazioak (ordenagailuak euskaraz eta beste aplikazio batzuk), sare sozialak (facebook, twitter), etab.

Programa honen bitartez diru-laguntzak jasotzeko euskararen nolabaiteko presentzia ezinbestekoa izanik hau kontutan hartuko da eta aurreko paragrafoan agertzen den atalen zerrendan dauden horietan euskararen presentzia baloratuko da. Honi dagokionez proiektuak gehienez 5 puntu jasoko ditu eta programa honetarako aurkeztutako proiektuan euskarari dagozkion horiek jaso eta proiektua abiatzekoan ez betetzeak diru-laguntza bertan behera uzteko arrazoia izango da.

Ekintzaileek programa honetan jasotzen diren diru-laguntzez gain Udala Euskara Zerbitzutik ematen diren horiek jasotzeko aukera izango dute eta proiektua lantzerakoan baita hau martxan jarri ondoren euskara zerbitzuko langileen aholkularitza eta laguntza zerbitzuak izango ditu eskuragai.

✓ BELAUNALDI ALDAKETA SALTOKIETAN. HUTSIK GERATU BEHAR DIREN LOKAL KOMERTZIALEI JARRAITUTASUNA.

Ohiko merkatari eta saltokien zerrenda osatuko du Udalak eta hutsik geratu daitezkeen saltokiei ekintzaile berrien bitartez jarraitutasuna emateko erraztasunak emango dira. MBPBan jasotzen den eta Ordiziako merkataritzan aurreikusten den belaunaldi aldaketari erantzuna ematea da honen helburua.

Bi aukera emango dira; 1. gaur egungo negozio mantentzea negozio-lokalaren insuldatzea burutuz. 2. lokal komertziala irekita mantentzea negozio berri baten bitartez.

Lehenengo kasuan: martxan dagoen negozioa bideragarria dela frogatu beharko da, dagokion erakundeekin elkarlanean enpresaren gaur egungo bideragarritasuna frogatzen duen dokumentazioa aurkeztuz (finantza alderdia, estrukturala, sektoriala, etab) eta transmisio edo jarraitutasun proposamen hauetarako aukeratu den negozioaren oinarrizko datuekin fitxa bat osatuz (ze sektorea dagokion, enpresaren antzintasuna, langile kopurua, non kokatuta dagoen, bezero-zorroa, etab). Ekintzaileak eskuratu duen negozioa modernizatzeko eta lan-errenta hobetzeko plan baten aurkezpena ere baloratuko da. Jarduera edo enpresa bideragarriari jarraitutasuna ematen dien ekintzaileek bakarrik izango dute diru-laguntza jasotzeko aukera, beti ere lokalaren alokairua ematen denean.

Bigarrenengo kasuan: martxan dagoen negozioa bertan behera utzi eta negozio berri bati emango zaio hasiera lokal komertzial horretan, aurreko negozioa itxieratik urte batetako epea gainditu aurretik. Beste lokal hutsak berreskuratzeko aurkezten diren proiektuetan bezala, GOIEKI garapen agentziaren bitartez edo beste aholkularitza enpresa baten bitartez landutako bideragarritasun plana lantzea ezinbestekoa izango da, beti ere garapen agentziak gainbegiratuko duelarik.

Bi kasuetan ekintzaileak eta lokalaren jabeak dagozkien eskaera inprimakiak osatu eta entregatu beharko dituzte. Diru-laguntza programaren oinarri arautzaile hauetan jasotzen direnak kontutan hartuko dira eta aurkezten diren proiektuak 5. Artikuluak jasotzen dituenak kontutan hartuta puntuatuko dira.

Aurkezten den proiektua belaunaldi aldaketaren atal honen barne dagoela ulertzeko, azken urteetan saltokia martxan izan duen negozioa gutxienez 5 urteko antzintasuna izan beharko du Ordiziako merkataritzan. Ordiziako merkataritzari urte batzuetan bere zerbitzuak eskaini eta erretiratzeko edo

jardunari uzteko pausoa emateko garaian merkatari / jabeari laguntza ematea da helburua, baita Ordiziako merkataritzan eskaintza zabal bat mantentzea ere.

6.art. LOKAL KOMERTZIAL HUTSEN JABEEN ETA EKINTZAILEEN ARTEKO KONTRATUAK SINATZEA;

Lokal hutsen jabeen eta ekintzaileen eskaera-inprimakiak jaso ondoren diru-laguntzen esleipena burutuko da. Ekintzailearen proiektua martxan jartzeko lokalaren jabearekin sinatu beharreko kontratua oinarri arautzaile hauen bitartez baldintzatuta egongo bada ere, Udalak ez du parte hartuko bi aldeen arteko akordioa sinatzeko orduan, baina parte hartzaileek horrela eskatzen badute akordioa erraztearren aholkularitza eta bitartekari zerbitzuak eskainiko ditu.

Kontratua ixteko adosten den alokairuaren zenbatekoa 5.artikuluari jasotzen diren eta merkatuak gaur egun finkatzen dituen prezioekin bat egin beharko dute. Hurrengo urteetan, berriz, gehienez KPIren urteroko eguneratzea kontuan hartuta eguneratuko da alokairuaren prezioa.

Aldeek kontratua betetzen ez badute edota bertan behera uzten badute, oinarri hauetan araututakoari men egin beharko zaio.

7.art. ERRENTAKO LOKALERAKO KONTRATUAREN IRAUPENA;

Udaleko diru-laguntzaren esleipena lortu duen ekintzaileak lokalaren jabearekin sinatzen duen kontratuaren iraupena ez du Udalak baldintzatuko. Udalak honen inguruko aholkularitza emango du beharrezko arabera. Ekintzaile berriaren proiektua edo jarduera gauzatzeko lokalaren alokairuarentzat Udalaren diru-laguntza bi urteko iraupena izango du eta esleipenaren onartzearekin batera izango du hasiera.

Hiru urteko epe horretan diru-laguntzaren zenbatekoa ondorengoa izango da:

Urtea	Ehunekoa	Gehinezkoa
1	%40	400€

2	%30	300€
---	-----	------

8.art. LOKALAREN ERABILERAK;

Programa honen diru-laguntzen adjudikaziodun titularrek derrigorrez eskatutako jarduerarako erabili beharko dute lokala, eta ezingo dute errentan hartutako lokala bestelako jarduera baterako erabili.

Jarduerari hasiera eman aurretik, esleipendunek erabiliko duten lokalarentzat erantzukizun zibileko aseguru bat kontratatu edo hau existitzen dela frogatu behar dute, jarduerak sor ditzakeen kalte posiblei estaldura emateko. Langile edo enpleguatuak kontratatuta dauden kasuetan erantzukizun zibil patronala barne egon beharko du.

Era berean, indarrean den legediari jarraituz, jarduera martxan jartzeko eta aurrera eramateko beharrezkoak diren administrazioako lizentziak eta baimenak izan beharko ditu.

Alokatutako lokalaren erabiltzeko eskubidea eta honen ustiapena esleipendunari dagokio eta ezin da beste inoren gain utzi.

Diru-laguntza bertan behera uzteko arrazoiak izango dira lokalaren jabearen eta ekintzailearen arteko kontratuaren atal bat ez betetzea bigarrenengoaren aldetik. Hau da, ekintzaileak kontratuak bere gain jasotzen dituen gastuei, ur, argindar, gas eta telefono zerbitzuen eta horniduren kontsumoak, instalazioak, konponketak, kontratazioak edota handitzeak sorturiko gastuak, baita kontagailu bidez banakatu eta neur daitekeen beste edozein gasturi ere aurre ez egitea. Horretarako, Udalak lokalaren jabearen bitartez gai hauei jarraipena egingo die eta horrela dagokionean beharrezkoak estimatzen dituen dokumentu edo ordainagirien kopiak eskatuko ditu.

Lokalaren jabeak bere eskubideak ase eta betebeharrei erantzun ditzan, ekintzailearen eta lokalaren jabearen arteko harreman laborala gainbegiratuko du Udalak. Horrez gain, esleipendunak derrigorrez kontserbazio-egoera onean, txukun eta garbi eduki behar du errentan hartutako lokala. Lokala kontserbatzeko gastu arruntei kontratuan adostu bezala aurre egingo zaie.

Jarduerari hasiera eman eta lokala hobetzeko egin beharreko obra txiki edo handiak lokalaren jabearen eta ekintzailearen artean adostu eta kontratuan jasoko dira. Nolanahi ere jabearen baimena beharko du obra egiteko. Lokalean egin nahi duen beste edozein obra edo moldaketa egiteko jabearen baimena beharko du aldeztu aurretik.

9.art. ORDAINTZEKO MODUAK;

Lokalaren jabeak eta ekintzaile berriak adostuko dute errentaren ordainketa, hau noiz eta nola egingo den kontratuan jasoko da. Fidantza ordainduko den edo ez, ordainketa hilerak eta aurretiaz egin beharko den eta bestelako zehaztasunak bi aldeek arteko kontratuan jasoko dira.

Behin akordioaren lehenengo hiru urteak pasa ondoren eta Udalak ekintzaileari esleitutako diru-laguntzari amaiera eman ondoren, oinarri arautzaile hauetan jasotzen diren artikuluek ez dute akordioaren jarraipenerako adosten diren horiek baldintzatuko.

Lokalean jarritako ur, gas, argindar, zabor-bilketa eta antzeko beste zerbitzuen kontratazioa eta ordainketa lokalaren alokairurako prestatutako kontratuari jarraituz egingo dira, baita negozioari dagozkion zerga, ariel, kontribuzio eta gainerakoek ordainketa ere.

Udalaren diru-laguntzaren esleipena lortu duen ekintzaileak, errentaren ordainketari aurre egiteko jasoko duen laguntza ekonomikoa kobratzeko, hilero ordainagiria aurkeztu beharko du Udal Merkataritza bulegoan edo Udal kontu-hartzailearen bulegoan. Hilero justifikatutako ordainketa bakoitzari dagokion laguntza ekonomikoa gainditutako hilabetera jasoko du ekintzaileak.

10.art. KONTRATUA BERTAN BEHERA UZTEA;

Oinarri hauetan jasotzen diren beste arauak ez betetzeaz gain, kontratua bertan behera uzteko arrazoi izango dira honako hauek ere:

- Errentan hartutako lokalaren ordainketaren zenbatekoa bi hilabetetan jarraian edo txandaka ez ordaintzea.
- Ekintzaileari egotz dakioken arrazoiren bat dela medio bi hilabete jarraian edo gehiago lokala itxita edukitzea edo jarduera etetea.
- Udalak alde aurretik baimenik eman gabe jarduera aldatzea.
- Lokala eta bere jabearekiko betebeharrei ez erantzutea. Kasu hauetan Udalak jabearen eskaera edo kexa aztertuko du eta dagokion erabakia hartuko du.

11.art. DIRU-LAGUNTZEN BATERAGARRITASUNA;

Baldintzen agiri honetan zehaztutako diru-laguntzak bateragarriak izango dira beste erakunde eta organismoek emandako laguntzekin.

12.art. PROGRAMAN PARTE HARTZEKO GAITASUNA;

Pertsona natural edo juridikoek aurkeztu ahal izango dituzte eskaerak, bertakoek nahiz atzeritarrek, baldin eta jarduteko ahalmen osoa badute eta kontratua hitzartzeko inolako debekurik ez badute.

- a) Ekintzailea pertsona juridikoa bada, honako agiri hauetakoren baten bidez egiaztatuko da haren jarduteko gaitasuna: eraketako eskrituraren edo agiriaren bidez, estatutuen bidez edo sorrera-egintzaren berri ematen duen agiriaren bidez. Dena delako agiri horretan jarduerak zer arauen arabera arautzen diren adierazi beharko da, eta beharrezkoa bada, pertsona juridiko motaren arabera, behar den moduan inskribatuta egon beharko da dagokion erregistro publikoan.
- b) Europar batasuneko kide den estaturen batekoak izan, baina bertakoak ez diren ekintzaileen jarduteko ahalmena egiaztatzeko, bizi diren Estatuko legediaren arabera dagokion erregistroan inskribatuta daudela egiaztatu beharko dute, edo aplikatzekoak diren erkidegoko xedapenen arabera zinpeko aitortpena edo ziurtagiria aurkeztu beharko dute, araudian ezarritako baldintzak betez.
- c) Atzerriko gainerako ekintzaileek beharrezko helbideari dagokion Espainiako Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorrek edo Kotsuletzeko bulegoak igorritako txostena aurkeztu beharko dute jarduteko gaitasuna egiaztatzeko.

Programan parte hartzeko debekuak:

Programan parte hartzea hitzartzeko debekurik ez dagoela egiaztatuko duen frogagiria.

Ekintzaileek testigantza judizial edo administrazioko ziurtagiriaren bitartez frogatu ahalko dute ez daudela programan parte hartzeko debekupean, kasuaren arabera, eta agiri hori erakunde eskudunak jaulki ezin duenean, administrazioko autoritate, notario publiko edo erakunde profesional kualifikatu baten aurrean emandako erantzukizunpeko aitortpen batekin ordezkatu ahalko da.

Europar Batasuneko Estatu kideetako ekintzaileak direnean eta aukera hori dagokion Estatuko legerian aurreikusita dagoenean, autoritate judizial baten aurrean emandako erantzukizunpeko aitorten batekin ere ordezkatu ahalko da frogagiri hori.

13.art. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA;

Honako hauek eratuko dute esleipena egingo duen epaimahai eskuduna:

PRESIDENTEA,

Jose Miguel Santamaría Eceiza, Ordiziako Udaleko alkatea.

EPAIMAHAIKIDEAK,

Jose Ignacio Iturrioz, Ordiziako Udaleko Sustapen eta Garapeneko zinegotzia.

Ana Urkizu Kerejeta, Ordiziako Udaleko Idazkaria.

Aitor Velázquez, Ordiziako Merkataritzako Teknikaria.

GOIEKI enpresa inkubategiaren ordezkaria.

ORDIZIAN merkatarri elkarteko ordezkaria.

14.art. ESKAERAK ETA ADMINISTRAZIOKO AGIRIAK AURKEZTEA;

Eskaerak Udalean aurkeztu behar dira (Kale Nagusia 24, behea) Hiritarren arreta bulegoan eta jendaurreko ordutegian, 8.00etatik 13.30etara, 2 hilabeteko epean, baldintza hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen direnen hurrengo egunetik zenbatzen hasita. Aurreikusitako proiektuen zenbatekoa betetzen ez bada eta honi zuzendutako aurrekontua agortzen ez den bitartean, epea luzatzeko gaitasuna izango du Ordiziako Udalak.

Eskaerak posta bidez aurkeztu ahal izango dira, ondorengo helbidera beharrezkoa den dokumentazioa bidaliz: Ordiziako Udala. Udal Arreta Bulegoa. Kale Nagusia, 24 behea. Ordizia 20240. Gipuzkoa.

Proiektuak posta bidez bidaliz gero, ekintzaileak postetxean jarritako bidalketa-data egiaztatu behar du eta egun berean adierazi behar dio kontratazio-organoari proiektua bidali duela, espedientearen zenbakia, xedearen titulu osoa eta hautagaiaren izena.

Udal-idazkariak egindako diligentzia bidez egiaztatuko da aipatutako agiria jaso izana. Bi baldintza horiek bete ezean, eta eskaintza adjudikazio-organoak lizitazio-iragarkian

zehaztutako epea amaitu ondoren jasoz gero, ez da eskaintza hori onartuko. Edozein kasutan, aipatutako epea amaitu eta hamar egunera dokumentaziorik jaso ez bada, ez da onartuko.

Ekintzaile bakoitzak eskaintza bakarra aurkez dezake. Arau hauek hausten dituenari atzera botako zaizkio hark izenpetutako eskaera guztiak.

Eskaera bat aurkezteak esan nahi du proiektuaren eskatzaileak - sustatzaileak agiri honetako klausulak inolako baldintzarik gabe onartzen dituela.

Programan parte hartzeko proiektuak gutun-azal itxi bakar batean aurkeztu behar dira. Hautagaiak sinatuko du gutun-azal hori eta helbidea adieraziko du jakinarazpenetarako. Orobat, gutun-azalaren izendapena eta goiburua ere idatziko ditu.

Agiri hauek aurkeztu behar dira gutun-azal horretan, baliozkoa izateko:

- 1) Eskaera-inprimakia behar bezala beteta.
- 2) Pertsona fisikoak: NANaren kopia.

Pertsona juridikoak: IFKren kopia, legezko ordezkariaren NANA eta ordezkatzeko lege-ahalmena duela ziurtatzen duen agiria.

Enpresa jada eratuta badago, Gizarte Segurantzari eta Erkidegoko Ogasunari ordaindu beharrekoak ordainduta izatea egiaztatuko duen ziurtagiria.

- 3) Ekintzailearen curriculum.
- 4) Ordezkaritza egiaztatuko duten agiriak:

4.1- Beste norbaiten ordezkari agertzen direnek edota eskaintzak beste norbaiten izenean sinatzen dituztenek, ahalorde notarialaren kopia bat aurkeztu behar dute, udal-idazkariak askietsitakoa.

4.2- Hautagaia pertsona juridikoa bada, ahalordeak Merkataritza Erregistroan inskribatuta egon behar du, baldin eta legez eska badaiteke.

Era berean, ordezkarietarako ahalorde askietsia duen pertsonak bere Nortasun Agiri Nazionalaren fotokopia konpultsatua edo agiri horren notario-lekukotza aurkeztu behar du.

- 5) Adierazi behar da ekintzaile edo hautagaia egunean dagoela indarrean dauden legeek xedatzen dituzten zerga-betebeharretan eta gizarte-segurantzarekiko betebeharretan. Hala ere, behin betiko esleipena egin aurretik, baldintza hori egiaztatuko duten agiriak aurkeztu beharko ditu sustatzaileak, Udalak horrela eskatzen badu.

- 6) Bideragarritasun-proiektuaren memoria, gutxienez honako datu hauek jasota: zer jarduera izango den, merkatua, bezeroak / hornitzaileak, emaitzen aurreikuspena eta berrikuntza-maila.
- 7) Baldintzen agiri honetan alokairurako zehaztutako m²ko prezioa hobetzekotan, errentarako prezioaren proposamena, edo finkatutako prezio hori ordaintzeko konpromisoa.

15.art. ADMINISTRAZIOAREN ESKUMENAK;

Dagozkion lege, dekretu eta artikuluen arabera, adjudikazio-organoak eskumen hauek ditu:

- a) Esleipen eta eskaera interpretatzekoa.
- b) Esleipenean eta eskaeran bete beharrekoei dagozkion zalantzei buruzko erabakiak hartzekoa.
- c) Eskaerari lotutako esleipena aldatzekoa, interes publikoko arrazoiak tarteko badira.
- d) Diru-laguntzaren esleipena bertan behera uztekoa eta erabaki horren ondorioak zehaztekoa.
- e) Diru-laguntzen esleipenak hutsik uztekoa, aurkeztu diren eskaerak programa honen helburuarekin bat ez badatoz edo eskatzen diren gutxienekoak betetzen ez badira.

16.art. LAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA;

Proiektuak aurkeztu behar dira Udaletxeko Erregistro Orokorrean, bi hilabeteko epearen barruan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Aurkezteko ordutegia hau da: 8:00etatik 13:30etara.

Esku hartzen duten hiru aldeak, Udala, Lokalaren komertzial hutsaren jabea eta ekintzaile berria, ados jarri ondoren sinatuko da ekintzailea diru-laguntzen programa honetara lotzen duen dokumentua.

Oinarriak bete arren programa honetan onartu ezin diren proiektuak kontutan hartuko dira eta Ordiziako Udalak aholkularitza eta laguntza zerbitzuak eskainiko ditu, ekintzaileak horrela behar eta eskatzen duen kasuetan.

17.art. KONTRATUAREN ARAUBIDE JURIDIKOA;

Programa honetan hitzartutakoak, diru-laguntzak emateko udal-sustapen ekimenen kontsiderazioa du, zeren eta proiektuak hautatzeko eta diru-laguntzak esleitzeko prozesu bat da, dena Ordiziako lokal komertzial hutsak ekintzaile berrien bitartez berreskuratzeko programaren oinarri arautzailetan jasotzen denaren arabera.

Oinarrien edukia, diru-laguntzak esleitzeko nahiz laguntzak itzultzeko prozedurak eta zigortzaile erregimenei dagokienez, kontuan izan beharko dira Diru-laguntzaei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legea, udal erregimeneko araudia, eta Ordiziako Udalaren diru-laguntzak arautzeko ordenantza.

Behin diru-laguntzak esleituta, hitzartutakoa gauzatzean edo iraungitzean sor daitezkeen edozein arazo juridikoaren aurrean, aldeek (lokal jabeak eta ekintzaileak) hitzartutakoan zehaztutakoa hartuko da aintzat, eta hitzartutakoan aurreikusi ez denerako, 1994ko azaroaren 24ko 29/1994 Legea, Hiri-errentamenduen hartuko da kontuan eta bestela, zuzenbide pribatuko arauak.

Ordizian, 2016eko _____ ren _____ (e)an



ORDIZIAKO UDALA